

Asisko gutuna

2021eko abuztua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

154. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Diotenez, adinean aurrera egin ahala, haurtzarora itzultzen gara, eta haurrak bezalakoak bihurtzen berriro. Ez dugu umekeritan erori nahi, baina bai hasierako xalotasun hura lortu.

Gogoetarako gaia

Haurra izan berriro

Zenbat kostatzen zaigun berriro haurrak izatea. Helduak izatera deituak gaude, bizitza erantzukizunez bizitzera, beren gauzen ardura izanez. Lana, harremanak, familia, gure pertsonak aurrera ateratzen ahalegintzen gara. Aspaldi utzi genuen haurtzarora, orain baino axolagabeago bizi ginen garai hura. Hala ere, pixkanaka konturatzen ari gara gure existentzia ezin dugula gugan oinarritu. Hau da, geugandik asko jarri arren, eta horrela egitea dagokigu, ez gara gure bizitzak ez eta besteenak duten onenaren egile. Existentzian benetan sostengatzen gaituena emana izan zaigu, dohaina da, oparia.

Kontraesana dirudi. Eskarmentua dugu: ahalegintzen ez bagara, gure ahalmenak garatzen ez baditugu, gure talentu guztiak jokoan jartzen ez baditugu, ez gara pertsona gisa garatuko. Gaur egun haurtzarora oso baloratua den garai haue-tan, denok nahi dugu errealitatea bere konplexutasun osoan ikus ahal izatea, edo norberaren

pertsona askearen duintasuna inork ez ukatzea; denok nahi dugu geure patuaren jabe izatea. Inoiz ez zaigu hainbeste baldintza eskatu pertsona aske eta helduak izateko.

Baina bizitzako etapa batzuk iristen dira, non lorpenek, merezimenduek ez diguten hainbeste baliyo. Bizitzak berak eskaintzen digu ikaskuntzarik sakonenetako eta baliotsuenetako bat: bizitzako gauzarik preziatuena oparia dela, umilki jasotzen ikasi behar duguna, haur batek gurasoengandik dena jasotzen duen bezalaxe. Haurtzaro berriaren bide horretan murgildu ahala, gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute gure bizitzan —gero eta naturaltasun handiagoz— samurtasunak, atsedenak, errukiak, barkamenak, miresmenak; eta, batez ere, Jainkoarekin eta lagun hurkoarekin txiki izateak, bizitzako gauzekin arduraz jokatzeari utzi gabe. Haur bihurtzen zarenean, mundua eten gabeko mirari bihurtzen da.

Bibliako pasartea: Mk 10,13-16

Beste batean, haurrak eramane zizkioten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen eta esan zien: «Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

Frantziskotar espiritualtasuna

Maita dezagun guztiok bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz, indar eta ahalmen guztiz, eza-guera osoz, kemen guztiz, ahalegin osoz, estimu osoz, errai guztiz, desira eta nahiera guztiz Jainko Jauna, gu guztioi gorputz osoa, arma osoa eta bizitza osoa eman ziguna eta ematen diguna; egin eta berrerosi gintuena eta ber erruki hutsez salbatuko gaituena; guri, zital eta doilor, ustel eta kirasdun, eskergabe eta gaiztooi, on guztiak egin eta egiten dizkiguna.

Ez dezagun, bada, beste ezer irrika, beste ezer nahi, ez diezagula beste ezerk atsegin eman eta gozara, geure Egile eta Berrerosle eta Salbatzaile, egiazko Jainko bakarrak baizik, bera baita on betea, on guztia, on osoa, on egiazko eta gorena. (1R 23,8-9)

Otoitza

Lo hartzen ez dakien haurra bezala
amaren eskutik heldu gabe,
halaxe nire bihotza jartzen da
zure eskuen gainean ilunabarrean.
Itxaropen eta xalotasunez beteriko loa
norbaitek zaintzen duela dakien haurra nola,
hala hartuko du atsedean nire arimak,
Zu gure zain zaudela jakinda.
Zuk gozatuko duzu nire azken samina,
Zuk arinduko azken nekea,
Zuk zainduko dituzu gaueko ametsak,
Zuk kenduko nire negarraren arrastoak.
Zuk emango diguzu bihar ere
argiaren eta zuziaren poza,
eta, hilik dakarzkizudan orduengatik,
Zuk goiz bizia emango didazu. Amen.

(Jose Luis Martín Descalzo)

Gutuneko azken hitzak

«Denbora asko behar da haur bihurtu arte hazteko» Pablo Picasso.

2021eko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Jn 6,24-35	8 Jn 6,41-51	15 Lk 1,39-56	22 Jn 6,60-69	29 Mk 7,1-8.14-15.21-23
2. Mt 14,13-21	9 Mt 25,1-13	16 Mt 19,16-22	23 Mt 23,13-22	30 Lk 4,16-30
3 Mt 14,22-36	10 Jn 12,24-26	17 Mt 19,23-30	24 Jn 1,45-51	31 Lk 4,31-37
4 Mt 15,21-28	11 Mt 18,15-20	18 Mt 20,1-16a	25 Mt 23,27-32	
5 Mt 16,13-23	12. Mt 18,21-19,1	19 Mt 22, 1-14	26 Mt 24,42-51	
6 Mk 9,2-10	13 Mt 19,3-12	20 Mt 22,34-40	27 Mt 25,1-13	
7 Mt 17,14-20	14 Mt 19,13-15	21 Mt 23,1-12	28 Mt 25,14-30	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitza
hilaren 26ean izango da.